

**2000KO LAN-MERKATUAREN ZENTSUA  
ESKARI-FASEA**

**ONDORIO NAGUSIAK**

## **UNEKO ENPLEGUAREN MAILA ETA EZAUGARRIAK**

### **1. Enpleguaren hazkunde handi eta orokorra.**

CMT-Eskaria, 2000ko urrian, 166.647 establezimenduk osatzen zuten; horiek, guztira, 745.121 enplegu<sup>1</sup> sortu zituzten.

Datuak 1996koekin alderatuz gero, datu nabarmenena honakoa da: establezimendu-kopuruaren nahiz enplegu-bolumenaren hazkunde handia. Establezimendu-kopurua % 13,7 hazi da, eta enpleguak % 16,5<sup>2</sup>; 105.000 enplegu baino gehiago sortu dira.

### **2. Enpleguaren zabaltze-joera orokorra da, baina jarduera-adar eta establezimendu-mota batzuetan pilatzen da.**

#### **Hazkundera adar jakin batzuetan pilatzen da**

Azken urteotako enpleguaren hazkunde garbia lau jarduera-adarretan pilatzen da, eta adar horiek, oro har, aldian sortutako enplegu garbiaren % 76,1 jasotzen dute; eta ekonomia osoa kontuan hartzen bada (% 74,2, azterketan sartzen ez diren sektoreak barne). Hona adar horiek:

\* Merkataritza-zerbitzu orokorrak: finantza-erakundeak, aseguruak, higiezin enpresak, enpresentzako zerbitzuak... (sortutako enplegu garbiaren % 25,7 hartzen dute).

\* Hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak (enplegu berri garbiaren % 18,4).

\* Metal-industria (% 18,2), eta

\* Merkataritza, ostalaritza eta konponketak (% 13,8).

Adar horiek dira, orobat, azken lau urteotako hazkunde erlatibo handiena izan dutenak, eta hori bereziki deigarria da merkataritza-zerbitzuetan; enplegu-maila % 36,9 hazi da (% 20,5 hezkuntzan eta osasunean eta % 17,4 metal-industrian) 1996 eta 2000 bitartean. Merkataritza- eta ostalaritza-adarreen baino ez da izan hazkunde txikiagoa (% 9,5), adarka erregistratukoetan txikienetarikoa.

---

<sup>1</sup> CMT-Eskariak Euskal Aeko ekoizpen-establezimenduen multzoari buruzko informazioa jasotzen du; salbuetsita daude lehenengo sektorea, etxeko zerbitzua eta Administrazioaren adarra (EJSN 93ko L atalean jasotzen diren jardueren lotutako Sektore Publikoaren zatia). Ekonomia osoa aintzat hartuta, gure ekonomia-sistemak, 2000. urtearen amaieran, 836.324 lanpostu inguru sortu zuen benetan.

<sup>2</sup> Hazkundera % 14,8koa da ekonomia osoa kontuan hartuta, 1. oharrean adierazitakoari jarraikiz.

## **Enpresa ertain eta txikietan**

1996 eta 2000 bitartean sortutako enplegu garbiaren gehiena 3 eta 99 langile bitarteko establezimenduei dagokie. Sortu diren 105.529 enpleguetatik, % 50 establezimendu-mota horretan sortu dira; % 38,3 100 langile baino gehiagoko zentroetan; eta % 11,7, aldiz, 1 eta 2 enplegatukoetan.

Hala ere, azken 4 urteetan erlazio positiboa izan da enplegu-sorkuntzaren eta establezimenduaren tamainaren artean. Izan ere, 1996 eta 2000 bitartean, 100 langile baino gehiagoko zentroetan % 26,2 hazi da enplegua; 3 eta 99 enplegatu bitartekoetan, % 15,8; eta 1 edo 2 langileko establezimenduetan, % 8,1.

Hala ere, 2000. urtean, establezimendu ertain eta txikiek —mikroenpresek ere— enpresa-ehunean duten nagusitasunak Euskal AEko ekonomiaren ezaugarri ezinbesteko izaten jarraitzen du. Enpleguaren % 51,8, bada, 3 eta 100 langile bitarteko establezimenduei dagokie; 1 edo 2 langileko mikro-establezimenduei % 22; eta enpleguen % 26,2, aldiz, 100 langile baino gehiagoko zentroei.

## **Eta ekonomiako sektore pribatuan**

Azken urteotan sortu den ia enplegu guztia (% 88) ekonomiako sektore pribatukoa da; % 7,3 enpresa publikokoa; eta % 4,6 gizarte-ekonomiakoa.

Enplegua azkarrago hazi da sektore pribatuan (% 17,8; enpresa publikoan % 10,8; eta % 6,9 Administrazio Publikoan). Enpleguaren bilakaera horrek enpresa pribatuen nagusitasuna indartzen du, eta aztertutako adarretako guztizko enpleguko partaidetza % 81,7tik % 82,6ra igo da.

*Hala ere, Gipuzkoako gizarte-ekonomiak ere hedatuz jarraitzen du*

Nabarmendu beharrekoa da, ostera, Gipuzkoako gizarte-ekonomiaren hedakuntza-joera, aldi horretan hazkunde handia izan baitu (hain zuzen, % 20,9koa; Araban % 10,1ekoa izan da; eta Bizkaian pixka bat behera egin du sektoreko enpleguak, hots, % -2,8). Gipuzkoan, gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboak gora egin du (1996ko % 10,6tik egungo % 11,1era) guztizko enplegua kontuan hartuta, Araban (egonkortasunerako joera, % 4,4tik % 4,3ra) eta Bizkaian (% 5,5etik % 4,5era egin du behera) ez bezala.

## **3. Enpleguko prestakuntza handiagorako joera**

Euskal AEko ekonomiaren egitura profesionalak 1996an zituen ezaugarri orokorrak mantentzen ditu. Nabarmenezkoak dira piramide-egitura eta eskulangileen (kualifikatuak nahiz kualifikatugabeak) nagusitasuna, enplegu osoaren % 51,6rekin (1996ko % 51 baino 6 hamarren gehiago). Enplegu-egituran, eskulangile ez den biztanleria eskualde guztietan da nagusi, Bilbaon eta Nerbioi ibaiaren eskuinaldean izan ezik. Bi eremu horietan, zuzendari, teknikari eta enplegatuak dira nagusi, enpleguan % 55,6ko eta % 51,4ko pisu erlatiboarekin, hurrenez hurren.

Enpleguak izan duen aldeko bilakaera, alabaina, teknikari eta eskulangile kualifikatuentzako lanpostuen gehikuntzan islatzen da batez ere; talde horiek, enpleguaren % 52,2 hartzen zuten 1996an, eta gaur egun % 55,8. Bi horiek dira, bada,

azken urteotan enplegu-hazkuntza handiena izan dutenak: teknikariak % 33,2, eta eskulangile kualifikatuak %20,9. Administrarien hazkundera % 15,7koa izan da; eskulangile kualifikatugabeena % 11,1; zuzendariena % 3ra jaitsi da; eta erdi-mailako arduradunenak hazkunde negatiboa (% -0,9) izan du.

Balio absolutuak aztertuz gero, enpleguan bilakaera positiboa izan duten kategorietan, 1996 eta 2000 bitartean enpleguak izandako hazkunde garbiaren % 46,6 eskulangile kualifikatuei dagokie, teknikarien % 30,8ren gainetik. Administrariak % 9,8 dira, eskulangile kualifikatugabeak % 9,3, eta zuzendariak % 3,4. Hortaz, enpleguaren hazkunde garbiaren % 77,4 eskulangile kualifikatuen eta teknikarien taldeari dagokio.

Eskulangile kualifikatuen artean, enpleguaren hazkundera nahiko banatuta dago, bai industria-adarretan (metalaren edo enpleguaren industrian ere) bai eraikuntzan eta zerbitzu-adarretan, bereziki merkataritza, ostalaritza eta konponketetan eta garraio eta komunikazioetan. Aldiz, teknikarien hazkundera hezkuntzan eta osasun eta merkataritza-zerbitzuetan pilatzen da; eta esanguratsuak dira, bestalde, metal-industria eta merkataritza, ostalaritza eta konponketak adarra. Nabarmentzekoa da merkataritza-zerbitzu orokorretako zuzendaritzako kideen enpleguaren hazkundera.

#### **4. Soldatapeko biztanleriaren hazkunde handia, bereziki mugagabeko kontratadunena**

Aldi baterako enpleguaren hazkundera modu ikusgarrian hazi da aldi horretan, 1996ko datuen aldean, % 29,6ko hazkundearekin, eta soldatapeko enplegu mugagabeari dagokion % 19,4ren gainetik. Hala ere, datu nabarmentzekoena enplegu-mota horren berreskuratzea da. Egia esan, balio absolutuetan, 1996 eta 2000 bitartean izandako enplegu garbiaren hazkundearen zati handiena muga gabeko enpleguei dagokie (enplegu berri garbien gutzitza % 64,1; aldi baterako soldatapekoen % 29,7; eta soldatarik gabekoen % 6,2).

Egitura orokorraren baitan ere, kontratu mugagabeekiko enpleguen proportzioak gora egin du: % 54,7koa izatetik % 56ra igaro da. Hortaz, 1989 eta 1996 bitartean izandako joera apurto da; hala ere, aldi baterako enpleguaren proportzioak gorantz jarraitzen du (1996ko % 16,6tik, 2000ko % 18,4ra).

Soldatapeko enpleguaren aldeko bilakaera soldata gabeko enpleguaren bilakaerari kontrajartzen zaio, aldi horretan % 3,6ko hazkundera baino ez baitu izan. Enplegu-mota horren pisu erlatiboa nabarmen jaitsi da 1996 eta 2000 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguan, hain zuzen, % 28,8tik % 25,6ra.

## 5. Jardunaldi-zatiko enplegua oraindik mugatua da

Jardunaldi-zatiko enpleguaren pisu erlatiboa oso mugatua da oraindik, 2000. urtean, Euskal AEn, eta enpleguaren % 8,2 hartzen du, 1996ko % 7,7 baino bost hamarren gehixeago. Jardunaldi-zatiko enpleguak zerbitzu-sektorean baino ez du nolabaiteko indarrik, eta enpleguen % 11,9 baino ez ditu hartzen. Aldiz, industrian eta eraikuntzan, sektore-enpleguaren % 3 baino gutxiagokoa da.

## 6. Emakumearen pisu aldakorra, emakumeen enpleguaren diferentzia-hazkunderako joerarekin

Euskal AEko enpresa-establezimenduetan emakume gutxi badago ere, azken lau urteetan 2,9 ehuneko-puntu hazi da: 1996an % 32,8 ziren, eta 2000n, % 35,7. Emakume-enpleguaren pisu erlatiboaren gorakada orokorra da, eta jarduera-adar guztietan ari da gertatzen.

### Hala ere, ez du eraginik laneko genero-banaketa gogorrean

Bilakaera positibo horrek ez du aldatzen lanean dagoen genero-banaketa gogorra, adarkako enplegu-banaketan eta lanbide-kategorien arabera banaketan islatzen dena. Adarrei behatzen badiegu, bereziki emakume gutxi daude industrian (enpleguen % 17,3 dira emakumeenak), eraikuntzan (% 7,7) eta garraio eta komunikazioen adarrean (% 15,8). Lanbide-kategoriak kontuan hartuta, oso emakume gutxi dira zuzendaritzako kide (% 30,6), erdi-mailako arduradun (% 15,6), eskulangile kualifikatu (% 26,4) eta eskulangile kualifikatugabe (% 34,9).

Azken aldian emakumeen enpleguaren pisu erlatiboak izandako bilakaerak adierazten duenez, aldeko joera izan da **barneratzea** handiagoa izan ohi den taldeetan, bai administrarien artean (guztizko enpleguaren % 63,8tik % 68,1era) bai teknikarien artean (% 40,7tik % 47,4ra), modu deigarrian. Gainerako kasuetan, hazkundera mugatua da (kasurako, eskulangile kualifikatuetan, guztizko enpleguaren % 24tik % 26,4ra; eta eskulangile kualifikatugabeetan, % 30,5etik % 34,9ra), edota negatiboa (kasurako, zuzendaritzako kideetan, % 31tik % 30,6ra; eta erdi-mailako arduradunetan, % 15,7tik % 15,6ra).

## 7. Gazteen taldeak laneratzea oraindik zaila da

Euskal AEko enpleguaren % 36,4 gaur egun 35 urtetik beherako pertsonak betetzen dute. Proporzio hori 1999koa baino askoz baxuagoa da. Izan ere, urte hartan, 35 urte baino gutxiagoko biztanleria % 44,4koa zen, potentzialki adin aktiboa zuten pertsonen multzoan.

### Hala ere, ekonomia-dinamismo diferentzialari lotutako enplegu-egitura pixka bat gaztetu egin da

Enplegu gaztearen proportzioa bereziki baxuagoa da energia-industrian, garraioan eta komunikazioetan, eta hezkuntza eta osasunean. Adar horietan, 35 urtetik beherakoen pisua % 30 ingurukoa da. Aldiz, enpleguaren aldetik hedagarriagoak diren adar batzuetan, talde horrek goranzko joera du, kasurako, metal-industrian (% 38,5), bestelako zerbitzuetan (% 40,9) edo merkataritza-zerbitzuetan (% 42,2).

Establezimendu-motak ere ezberdintasun garrantzitsuak dakartza. Hortaz, gizarte-ekonomiako establezimenduetan, nabarmen gazteagoa den adin-egitura dago, 35 urtetik beherako enplegatuen % 42,5ekin. Sektore pribatuko gainerako enpresetan, ehuneko hori % 37,1ekoa da, eta enpresa publikoetan % 27ra jaisten da.

## **8. Enplegua nabarmen berreskuratu da Bizkaian.**

Hala ere, enpleguaz ari garela, datu esanguratsuena da Bizkaian enplegua berreskuratu dela 1996-2000 aldian. Bizkaia da enplegu-hazkunde handieneko (% 18,3rekin; Gipuzkoan % 16,1 eta Araban % 11,8) probintzia, eta 1996 eta 2000 bitartean sortutako enplegu garbien % 54,9 jasotzen ditu (Gipuzkoak % 33,8 eta Arabak % 11,3).

### **Bizkaiko berreskuratzearen izaera ez-industrialia**

Bizkaiak enpleguan zuen posizio erlatiboa modu argian hobetu da bai zerbitzuen sektorean (1996ko enpleguaren % 53,2tik egungo %54,5ra) bai eraikuntzakoan (enpleguaren % 52,7tik % 53,8ra). Industria-sektorean, aldiz, Bizkaia posizioak galtzen ari da, eta 2000. urtean Euskal AEko guztizko industria-enpleguaren % 40,9 (1996an, % 41,5) baino ez zuen jaso. Irabazia izan duena Gipuzkoa da, 2000. urtean enpleguaren % 40 izan baitu (1996an, % 38,5); arriskuan jarri du tradizioz Bizkaiak industrian izan duen nagusitasuna.

Bizkaiko industriak,aldi honetan, geldialdiaren ebidentziak ditu oraindik, metalaren adarraren salbuespenarekin; hala ere, Gipuzkoakoak baino dinamismo txikiagoa du.

### **Desindustrializatzearen eragina medio, hobekuntza berriak ezin du Bizkaiak enpleguaren eta biztanleriaren arteko erlazioan duen bigarren mailako posizioa aldatu**

Bizkaiak industrian duen bigarren mailako posizioak zehazten du probintzia horrek enpleguan duen atzerapena. Bizkaian biztanleko enpleguak oso baxua izaten jarraitzen du: 33 enplegu biztanleko, Gipuzkoako 38,1 eta Arabako 39,6en aldean. Posizio diferentzial horren jatorria 100 biztanleko industria-enpleguaren ratioan (8,1 Bizkaian, eta 13,4 Gipuzkoan eta 15,3 Araban) dago. Gainera, 1996 eta 2000 bitartean hazi egin da Bizkaiaren eta Euskal AEko gainerako probintzien arteko tartea.

Egia esan, Bizkaian 1996 eta 2000 bitartean izandako enplegu-hazkundera Gipuzkoakoa baino txikiagoa da, enplegua/biztanleria erlazioan bederen. Hala, Gipuzkoa 100 biztanleko 32,7 enplegutik 38,1 izatera igaro da, ehuneko 5,4 puntuko hazkunderarekin; hots, Bizkaiko 5,1 (biztanle bakoitzeko 27,9 enplegutik 33 enplegura) eta Arabako 3,7 puntuen (35,9tik 39,6ra) puntuen gainera. Hortaz, Bizkaiak Arabarekiko aldea murrizten badu (8 puntutik 6,6ra), Gipuzkoarekiko egoera okertzen du (1996an 4,8 puntuko aldea zuten, eta gaur egun 5,1ekoa). Bizkaian, 2000. urtean, biztanle bakoitzeko izan den enplegu-maila Araban eta Gipuzkoan 1996an zutenaren antzekoa edo baxuxeagoa da.

### **Bizkaiko tertziarizazio-prozesuaren mugak**

Bizkaiko tertziarizazioaren eraginak, hirugarren sektoreko jatorriko enpleguaren % 67,0rekin (1996an, % 7), desindustrializazioaren eraginak estaltzen ditu, eta ez zerbitzuen sektoreko eragin diferentziala Euskal AEko gainerako probintzien aldean. Horietan, enpleguaren % 40 baino gehiago zerbitzuen sektoretik kanpo dago (% 45,6 Araban eta % 42,5 Gipuzkoan).

Bizkaian zerbitzuetan 100 biztanleko enplegu-ratioa 2000. urtean handixeagoa (22,1ekoa; Gipuzkoan 21,9koa eta Araban 21,5ekoa) izan den arren, 1996an (urte hartan ere Bizkaia beste bi probintzien azpitik izan zen) ez bezala, oraingoan, bai sektore horretan bai eraikuntzan, Euskal AEko lurraldeetan enpleguak antzeko eragina izan du. Zerbitzu-sektorearen baitan ere, Bizkaia gainerako probintzien azpitik dago adar gehienetan; salbuespen dira garraioen eta komunikazioen sektorea eta merkataritza-zerbitzuen sektorea, azken hori modu nabarmenean. Izan ere, Bizkaian azken lau urteotan izan den aldeko bilakaera, hein handi batean, enpleguak sektore horretan izan duen hazkunde diferentzial handiari lotzen zaio.

#### **9. Bilakaera positiboa Euskal AEko eskualde guztietan, barne-ezberdintasunekin.**

Eskualdekako datuek enpleguak Euskal AEko eskualde guztietan oro har oso bilakaera positiboa izan duela adierazten dute; % 10en azpitik Gasteiz (% 9,7) eta Debabarrena (% 4,7) baino ez daude. Euskal AEko batez bestekoaren azpitik daude Tolosa-Goierra (% 12,4), Nerbioi ibaiaren ezkeraldea (% 14,7) eta neurri txikiagoan, Bilbo metropolitarra (% 16,9) ere.

Hazkunderik handiena, aldiz, Bizkaiko iparraldekoa eta Durangaldekoa izan da (% 24,4 Nerbioi ibaiaren eskuinaldean, % 24,2 Bizkaiko iparraldean eta % 19,5 Durangaldean), bai eta Arabako Aiara eskualdekoa (% 24,6) eta Gipuzkoako Donostia-Beterri (% 18,3) eta Debagoiena (% 17,1) eskualdeetakoak ere. Eskualdeen multzo horrek azken lau urteotan sortutako enplegu garbiaren % 55,4 hartzen du; lehen zehaztu ditugun hedagarritasun gutxiagoko eskualdeetan, aldiz, ehunekoak % 44,6koa da.

## **ENPLEGU-DINAMIKA BERRIA**

### **10. 1996an baino enplegu-dinamismo handiagoa 2000n**

Euskal AEko lan-merkatuaren ezaugarri nagusia, 2000. urtean (urtarriletik azarora), kontratazio-dinamika handia izan da, 1996ko aldi berean izandakoa baino handiagoa. Horren zeinu zuzenena aurreko aldiak izandakoa baino alden eta baje arteko saldo positibo handiagoa da: hots, enpleguaren %3,5ekoa, eta 1996an, % 1,1ekoa. Kopuruei behatzen badiegu, diferentzia hiru aldiz handiagoa baino gehiagokoa da (25.895 enplegu garbi sortu dira 2000ko urtarrila eta azarora bitarte, eta 1996an 7.085 sortu ziren).

#### **Batez ere krisi-egoerako establezimenduen baje eragina gutxitzeari lotzen zaio**

1996an bezala, alden eta baje dinamika oso handiaren benetako eragina erlatiboki urria da enplegu garbiaren sorkuntzaz ari garela, hiru faktoreen eragin metatuaren ondorioz. Hona hemen faktoreak: a) enplegu-txandakatzearen tasa altua<sup>3</sup> (% 66,8koa); b) enplegu-dinamikarekiko establezimenduen proportzio mugatua (guztizkoaren % 20,4 baino ez); eta c) enpleguko dinamika positiboko establezimenduetan sortutako alta garbiek dinamika negatiboko zentroetako (2000. urtean oraindik % 22,4koa) baje konpentsatu izana.

Hala ere, azken lau urteotan, datu horiek hobetu egin dira zenbait alderditan. Garrantzitsuenak da krisi-egoeran edo doikuntza-prozesuan dauden establezimenduen eragin negatiboari dagokiona. Izan ere, enplegu baje baino ez dituztenak, altak (edo altak eta baje) dituzten establezimenduen aldean nabarmen jaitsi dira, 1996ko datuekin alderatuta. 1996an baje baino ez zituzten establezimenduek enplegu-dinamika positiboko establezimenduek sortutako alden bolumen garbiaren % 64,1 konpentsatzen zuten. Ehuneko hori nabarmen jaitsi da 2000. urtean, % 22,4ra jaitsi baita.

Baje dinamikaren eragina establezimendu-talde batzuetan baino ez da aipagarria, kasurako, 3 enplegu baino gutxiagoko establezimenduetan (% 83,0)<sup>4</sup>, eta jarduera-adar batzuetan, hala nola energia-industrian (% 49,4) eta merkataritza, ostalaritza eta konponketak adarrean (% 39,6). Eskualde eremuari bagagozkio, Nerbioi ibaiaren ezker aldean enplegu baje gehiegi konpentsatzen dituzte altak (% 45,9).

Ditugun datuen arabera, oro har aldeko bilakaera dago enplegu-dinamikarekiko establezimenduen bolumenean. Hala, areagotu egin da dinamikarekiko zentroen proportzioa, hain zuzen 1996ko % 16,5etik egungo % 20,4ra. Gora egin du, orobat, altak (% 3,1etik % 5,1era) edo altak eta baje dituzten zentroen (% 9,2tik % 12ra) proportzioak, eta behera baje baino ez dituztenenak (% 4,2tik % 3,4ra).

Aldiz, txandakatze-tasa altuek ez dute aldakuntza handirik izan. Hala, 2000n baje % 66,8 aldi bereko aldi lotu zitzaizkien; kopurua 1996koaren ia berdina (% 66,7) da.

### **11. Enplegu-dinamikaren berreskuratzea Bizkaian**

<sup>3</sup> Aldiko altak / aldiko baje, baje

<sup>4</sup> Hala ere, ezberdintasunak oso handiak dira 1996. urtea kontuan hartuta, urte hartan 3 enplegu baino gutxiagoko establezimenduen ehuneko hori % 622,8koa baitzen.



Enplegu-dinamikaren aldaketa gehien atzematen den probintzia Bizkaia da, datuak 1996koekin aldatuta. Hala, 2000n lan-merkatuko aldeko dinamikaren eragin garbia (% 3,26) dugu, 1996an genuen joera negatiboari (% 0,4ko saldo negatiboa) kontrajarrita. Enplegu-dinamismoko hobekuntza horiek beste bi probintzietan ere izan ditugu, batez ere Gipuzkoan. Hartara, Gipuzkoan aldeko saldo garbia 1996an enpleguaren % 2,4 izatetik egungo % 3,77ra igaro da. Araban, bestalde, % 2,9tik % 3,52ra igaro da.

### **Etorkizunerako zantzu negatiboak**

Aurkeztutako datuek erakusten digutenez, ostera, enplegu-sorkuntza garbiaren gaineko eragina gaur egun nabariagoa da Gipuzkoan (% 3,77) eta Araban (% 3,52). Bizkaian, enpleguaren gaineko eragin garbia % 3,26koa da. Horren arabera, lurralde horrek azken urteetan Arabaren eta Gipuzkoaren aldean metatutako atzerapena berreskuratzeko ahaleginean indar erlatiboa galdu du 2000. urtean.

## **12. Eraikuntzaren berreskuratzea, sektore guztietan orokorra den hobekuntzako testuinguruan**

Modu deigarrian, industriako establezimenduek (% 4,23) eta eraikuntzakoek (% 4,11) enplegu garbiaren hazkundera izan zuten 2000ko urtarrila-urria aldiaren, zerbitzu sektorekoek (% 3,02) baino nabarmen handiagoa. Kopuru absolutuetan, ostera, enplegu bolumen orokor handiagoa izateagatik, zerbitzuetako enplegu sorkuntza garbiak (13.918 enplegu berri garbi) oro har industriaren eta eraikuntzaren multzoa (9.601 eta 2.377, hurrenez hurren) gainditzen ditu.

Industriaren baitan, metal-industria (% 5,07) eta manufaktura-industria (% 4,0) dira enplegu-hazkunde handieneko industria-adarrak; energia-industriak dinamismo txikiagoa (% 1,42) izan du. Zerbitzu-sektoreko hazkundera neurritsuagoa da, batez ere merkataritzaren, ostalaritzaren eta konponketen adarrarengatik, enpleguaren hazkundeko % 2ko saldo garbiarekin; eta bestalde, hezkuntza eta osasun adarrarengatik (% 2,8). Bestalde, beste adar batzuek industriako eta eraikuntzako emaitzen antzekoak dituzte, kasurako zerbitzuek, % 4,5eko saldo positiboarekin, eta merkataritza-zerbitzu orokorrek (% 4,1). Garraioak eta komunikazioak adarra bitarteko posizioan dago, % 3,6ko ehunekoarekin.

1996-2000 aldiko bilakaerari behatuta, badirudi metal-industriaren eta merkataritza-zerbitzu orokorren hedatze-joera mantendu, hezkuntzaren eta osasunaren hazkunde-erritmoa moteldu eta merkataritza, ostalaritza eta konponketa adarraren moteltzea baieztatu direla. Aldiz, badirudi manufaktura-industria, eraikuntza eta gainerako zerbitzuak moteldu egin direla 2000. urtean.

### **13. Tamaina ertaineko zentroetako enplegu-sorkuntza sendotzea**

10 eta 500 enplegu bitarteko establezimenduak dira enplegu garbien sorkuntzako ehuneko handiena dutenak. Kasu guztietan % 4tik gorakoak dira, eta 250 eta 500 enplegu bitarteko establezimenduetan lortzen dute % 8,05eko gehienekoa. Enpleguaren saldo garbia batez bestekoa baino baxuagoa da 500 enplegu baino gehiagoko zentroetan (% 1,53koa 500 eta 999 enplegu bitartekoetan eta % 2,53koa 1.000 baino gehiagokoetan), eta ia nulua (% 0,35) 3 enplegu baino gutxiagokoetan. Bestalde, 3 eta 9 enplegu bitarteko establezimenduetan, % 3,6koa da.

Kopuruei behatuta, enpleguko saldo positiboaren % 60,9ko ehunekoa 3 eta 100 enplegu bitarteko zentroei dagokie, eta beste % 30,4, aldiz, 100 eta 499 enplegu bitartekoei. Hortaz, 3 eta 100 enplegatu bitarteko zentroek lanpostuen sorkuntzan azken aldian duten indar handia baieztatu da.

### **14. Eskulangile kualifikatuak edo kualifikatugabeak kontratatzearen orientazio indartsua**

2000ko enplegu-sorkuntzako saldo handienak eskulangile kualifikatugabeenak (% 7,4), eskulangile kualifikatuak (% 3,9), teknikariak (% 3,5) eta administrariak (% 3,5) dira. Enplegu-saldo baxuenak zuzendaritza-kideenak (% 0,5) eta administrari arduradunenak (% -1,5) dira, azken horretan bilakaera negatiboarekin.

Datu horiek azken lau urteetako joera indartzen dute, eskulangile kualifikatugabeen salbuespenarekin, gaur egun eskari erlatibo handiagoa dutela baitirudi. Egoera horrek 1996an atzemandakoa gogorarazten digu: eskulangile kualifikatugabeen taldeak % 4,7 gehitu zuen enplegu-maila, orduan erregistratutako gehikuntza handienarekin. Deigarria da, bestalde, enplegu teknikoaren sorkuntza-indarraren nolabaiteko jaitsiera, 1996ko % 3,9tik % 3,5era jaitsi baita. Kontrakoa gertatzen da administrariarekin (saldo garbiaren % 1,2 gehitu zen 1996an, eta gaur egun % 3,5) eta modu garbiagoan, eskulangile kualifikatuekin (% - 0,4tik % 3,9ra).

Beha diezaiegun kopuruei: 1996an teknikariek eta eskulangile kualifikatugabeek enplegu-sorkuntza positiboaren gehiengoa osatzen zuten, eta 2000n eskulangile kualifikatuak daude lehenengo postuan (11.072 enplegu garbi sortu dira, eta 1996an 912ko galera garbia izan zen). Atzetik datoz eskulangile kualifikatugabeak (7.321, eta 1996an 4.181) eta teknikariak (4.598, eta 1996an 3.833); orain nolabaiteko garrantzia dute administraritzako enplegatuek (2.670, eta 1996an 805).

### **15. Alten aldi baterako kontratatzerako joera mantentzea**

Mugagabeko kontratazioak nabarmenki gutxienekoa izaten jarraitzen du sortutako enpleguen artean. Hala, 2000ko urtarrila-urria aldian izandako alden % 91,4 aldi baterako kontratazioak izan dira; ehuneko hori 1996koaren (% 92,5) antzekoa da. Enplegu garbiko saldo positibo handienak dituzten taldeen artean ez da aldi baterako kontrataziorako joera handiagorik atzeman; kasu guztietan aldi baterako kontratazioa izan da nagusi.

### **16. Egungo plantillen egoera aztertuta aurreikusten denez, enpleguan 1996an baino dinamismo handiagoa mantenduko da, eta batez ere eskulangile kualifikatuei eta teknikariei eragingo die**

Establezimenduek epe laburrerako doikuntzengatik izango duten jokabidearen azterketak emaitza hobeak eman ditu 2000n, 1996. urtearekin alderatuta. Urte hartan 2.957 enplegu berriren sorkuntza garbia baino ez zen planteatu aurreikusitako plantilla-doikuntzen ondorioz. Aldiz, 14.262 enplegu dira Euskal AEn sor daitezkeenak 5 enplegu baino gehiagoko establezimenduetan, proiektuak aurrera ateratzen badira.

Zerbitzuen sektorean aurreikusi da enplegu-hazkunderik handiena. Modu horretan, zerbitzuen sektoreak 7.550 enplegu (1996an, 3.497) garbi sortzeko gaitasuna izango du. Ondoren industria izango luke 4.800eko kopuruarekin, 1996ko perspektiba ezezkorra (-668 enplegu potentzialki galtuta) apurtuta, eta eraikuntza, 1.911rekin (1996an, 149).

Hobekuntza orokorraren pisurik handiena eskulangile kualifikatuek dute; 1996an aurreikusitako 2.309ko enplegu-sorkuntzatik, 8.509ra. Garrantzitsua da, bestalde, teknikarien kontratatze-diferentziala (2.032 pertsonatik 3.879ra), bai eta administrariena (21 lanpostuko galera garbitik aurreikusitako 1.014 kontratazio berri garbietara) ere. Gauza bera gertatzen da zuzendaritzako kideekin (226tik aurreikusitako 471 kontratazio berrietara) eta erdi-mailako arduradunekin (104tik 575era). Langile kualifikatugabeek ari garela, 1996ko joera negatiboak enplegu-bolumenaren hazkunde oso txikia ekarri du (1996an 1.690 lanpostu galtzea aurreikustetik, gaur egun 194 lanpostu berriko sorkuntza garbira).

## **17. Esku-lana, bereziki eskulangileak, kontratatzeko zailtasunak**

Kualifikazio egokiko eskulangileen eskasiaren edo gabeziaren arazoa nabarmentzen hasi da 2000n. Establezimenduen %26,3k aipatzen dute gai hori, eta egungo kontratazioko hirugarren faktore mugatzailea da (enpresaburuen % 27,2k aipatutako soldatakoak ez diren kostuak eta % 49,2k aipatutako salmenta handiagoen aurreikuspenen gabezia daude aurretik).

Autonomo ez diren enpresaburuen % 11,2k diote zailtasunak izan dituztela azken urtean langile-motaren bat kontratatzean. Arazo hori deigarriagoa da industrian (establezimenduetako % 25,4 daude eraginda) eta eraikuntzan (% 19,4); nabarmentzekoa da metal-industriako (% 33,2) arazoa. Zerbitzuetan % 7,9ra jaisten da ehunekoa, adarraren arabera, % 5 eta % 10 bitarteko oszilazioekin.

Inkestan 32.773 inguru lanposturi lotutako kontratazioko arazoa atzeman da, hots, gaur egungo okupatuen guztizko bolumenaren % 4,4ri lotutako arazoa. Arazo hori kasuen % 69,3tan konpondu da, barne-langileak birziklatuta, beste zona geografiko edo establezimendu batzuetan bilatuta langileak, eta beste batzuetan, soldata-pizgarriak erabilia. Hala ere, 10.000 lanpostu inguru (zehatz-mehatz, 10.061) estali gabe daude gaur egun Euskal AEn, langile egokiak falta direlako.

Egiaztatu da aztertutako kontratazio-arazoek batez ere eskulangile kualifikatuei (% 63,7) eragiten dietela, eta gero langile kualifikatugabeei (% 18,0). Horiek dira, hortaz, lan-merkatuan enpresa-beharrizanak estaltzeko arazo handienak izan dituzten kategoriak. Gabeziako % 14,9 baino ez dira teknikarienak.

## **PRESTAKUNTZA EUSKAL AE-KO ENPRESA-ESTABLEZIMENDUETAN**

### **18. Prestakuntza-jardueren eraginaren gorakada**

Eskura ditugun adierazleen bidez ikusten denez, establezimenduetan asko hobetu da prestakuntzarako sarbidearen inguruan. Horrela, 1996 eta 2000. urteen bitartean:

\* Azken urtean prestakuntzako jardueraren bat egin duten enpresa-establezimenduen proportzioak (% 22,4; eta 1996an, % 18,8) gora egin Euskal AEn.

\* Parte-hartzaileen kopuruak ere gora egin du, guztira 268.1671996 izan baitira, 1996an baino % 57,4 gehiago. Kopuru horrek adierazten digunez, parte-hartzaileen bolumenean, guztizko enplegua kontuan izanda, igoera handia izan da (1996ko % 26,6tik egungo % 36ra).

\* Azkenik, prestakuntzako orduak ere gora egin dute: 2000. urtean 6.306.090 ordu erabili dira, 1996an baino % 52,5 gehiago. Prestakuntzako orduen kopurua guztizko enpleguarekin erlazionatuta, ordu kopurua/enplegua modu nabarmenean hazi da, 1996ko 6,5etik 2000ko 8,5era.

Hortaz, prestakuntza sendotu egin da Euskal AEko ekoizpen-sisteman.

### **Bizkaia da prestakuntza-jardueren onuradun handiena**

Probintzia-eremuan, 1996ko orekak (kasu guztietan, prestakuntza-orduak/enplegua erlazioko 6,5 inguru) apurtzeko joera du. Ildo horretan, Bizkaia gainerako probintzien gainetik dago prestakuntzarako sarbidearen aldetik 9,2 ordu/enplegu-rekin; Gipuzkoan (7,8) eta Araban (7,5).

### **19. Zentro txikietan gora egin duen arren, prestakuntza zentro handienei lotzeko joerak jarraitzen du**

Prestakuntzarekiko establezimenduen proportzioak gora egin du establezimendu txikienetan. Hala, 3 enplegu baino gutxiagoko establezimenduetan, 1996ko % 12,9tik 2000ko % 16,4ra igaro da. Era berean, 3 eta 9 enplegu bitartekoetan, % 30,9tik % 33,6ra igaro da. Aldiz, 10 langile baino gehiagoko establezimenduetan joera pixka bat beheranzkoa da.

Joera horiek ez dira nahikoak zentro txikienetan prestakuntzarako sarbide-aukeretan dagoen aldearen joera aldatzeko. Ikus ditzagun kopuruak: prestakuntza-jarduerak 3 langile baino gutxiagoko zentroen % 16,4tan egin dira; 3 eta 9 enplegu bitarteko establezimenduen % 33,6tan, 10 eta 49 enplegu bitarteko % 55etan eta 50 enplegutik gorakoen % 80 eta % 95 bitartetan.

## **20. Orduak zerbitzuetan eragin handiagoa**

1996an ez bezala, prestakuntzak 2000n zerbitzu-sektorean izan du eraginik handiena. Enpleguko orduen ratioa (9,3) —1996ko 6,6 baino nabarmen altuagoa— industriakoa (7,6) baino handiagoa da; azken hori 1996ko ratioaren (7,3) antzekoa da. Eraikuntzako gorakada ere nabarmena da, 1996ko 2,5 orduak/enplegua ratiotik egungo 5,7ra igaro baita.

Joera horien emaitza gisa, 1996 eta 2000 bitartean prestakuntza-orduen kopurua handitzea izan dugu, sektoreak argi eta garbi bereizten direla. Hala, industrian % 18,8ko hazkundera izan da, zerbitzuetan % 66,2koa eta eraikuntzan % 157,6koa.

## **21. Jarduera-eremura zuzendutako prestakuntza, eta kudeaketaren eta hizkuntzen garrantziak gora egiten du**

1996an enpresa-ehunean jasotako prestakuntzaren aldean, 2000n jasotakoaren ezaugarri da establezimenduek parte-hartze handiagoa (prestakuntza-orduez ari garela) izan dutela enpresa-kudeaketari eta hizkuntzei lotutako jardueretan. Hala, establezimendu bakoitzaren eremu propioen inguruko prestakuntza nagusi den arren, prestakuntza-mota horren pisu erlatiboak garrantzia galdu du: 1996an establezimenduek jasotako prestakuntza-orduen % 50, eta 2000ko % 44,0. Aldiz, gora egin dute kudeaketarako (1996an orduen % 16,3 eta gaur egun % 22,9) eta hizkuntzetarako (% 16tik % 17,2ra) prestakuntzek. Informatikak ere behera egin du pixka bat, hain zuzen, % 17,7tik % 16ra.

Kontuan izan dezagun, hala ere, prozesu hori prestakuntza-orduen bolumenaren hazkunde garrantzitsuan txertatzen dela, eta kasu guztietan arlo bakoitzera zuzendutako prestakuntza gehitu dela. Hala ere, hazkundera handiagoa da kudeaketa arloetan eta hizkuntzetan (% 60 eta % 115 bitarteko hazkundera prestakuntza-orduen bolumenean), informatika-arloetan edo jarduera propioetan (% 35 inguruko gehikuntza) baino.

Administrariak, zuzendaritzako kideak eta teknikariak dira informatikan, hizkuntzetan eta enpresa kudeaketan jasotako prestakuntzaren onuradun nagusiak. Aitzitik, eskulangile kualifikatuak, teknikariak eta zuzendaritzako kideak dira establezimenduetako jarduera propioari lotutako prestakuntzaren jasotzaile nagusiak.

## **22. Finantzatze ahaleginak gora egin du, baina diru-laguntzen orientazioak ez du prestakuntzarako sarbideko hainbat egitura-ezberdintasun murriztu**

Enpresek prestakuntza-arloan egin duten ahaleginean modu erabakigarrian lagundu dute diru-laguntza publikoek. Hala, 2000. urtean prestakuntza-jarduerak egin dituzten % 44,1ek gutxienez diru-laguntzaren bat izan dute prestakuntza-jarduerak finantzatze. Ehuneko horrek nabarmen egin du gora 1996koaren aldean, orduan % 27,5ekoa baitzen. Kasurik gehienetan, diru-laguntza horrek prestakuntzaren guztiko kostuaren % 100 estali du, hain zuzen, diru-laguntza jaso duten establezimenduen % 76,1etan; 1996an ehuneko hori % 49,5ekoa izan zen.

Diru-laguntzetarako sarbidea zuzenean lotzen zaio prestakuntza-jarduerak egin dituzten establezimenduen tamainari. Hala, gutxieneko ehuneko 3 enplegatu baino gutxiagoko zentroek (% 38,7) dute, eta 3 eta 49 enplegu bitarteko zentroetan, % 50 inguruko ehuneko 3 lortzen dute. Hortik aurrera hazkunde handia atzematen da, 50 eta 999 enplegu bitarteko zentroetako % 60-70eraino. Azkenik, ehuneko handiena 1.000

enplegutik gorako establezimenduek (% 79,2) dute. Diru-laguntzek, horrenbestez, zentro txikienek prestakuntzarako sarbide txikiagoa izatearen joera indartu dute.

Sektore-eremuan, industria-establezimenduek gainerako establezimenduek baino diru-laguntza gehiago jasotzen dute prestakuntzarako. Manufaktura-industriako (% 58,7) eta energia-industriako (% 58,2) establezimenduak dira diru-laguntzen proportziorik handiena jasotzen dutenak; hala ere, metal-industriako % 55,8k jaso dituzte laguntza horiek. Industriaz bestelako arloetan, diru-laguntzek nabarmen egiten dute behera (% 42,8 zerbitzuetan eta % 38,8 eraikuntzan). Hala ere, kopuru garrantzitsuak ditugu hezkuntza eta osasunean (% 48,3), merkataritza, ostalaritza eta konponketetan (% 47,5) eta merkataritza-zerbitzuetan (% 43,3).

## **LEHIAKORTASUNA ETA TEKNOLOGIA-MAILA**

### **23. Informatizazio-maila oraindik mugatua da**

Euskal Aeko enpresa-establezimenduen erdia, zehazki % 50,6, 2000. urtearen amaieran jarduera-prozesua informatizatzen hasi gabe zeuden. Ezbairik gabe, ehuneko hori oso altua da; hala ere, hobekuntza nabarmena izan da 1996ko egoeraren aldean, orduan ehunekoa % 65,3koa baitzen.

Kopuru erlatiboetan izandako aurrerapena, hein batean informatizatutako establezimenduen ehunekoaren hazkundean pilatu da batez ere (% 18,7tik % 33,4ra), eta erabat informatizatutako establezimenduen proportzioa % 16an mantendu da.

#### **Ezartze-maila ezberdina sektoreen arabera**

Informatizazio-mailen adarkako azterketatik ondorioztatzen denez, Euskal Aeko ekoizpen-sistemaren baitan oso bestelako errealitateak daude. Ildo horretan, hainbat sektore-errealitate dago.

Erabateko informatizaziorako joera merkataritza-zerbitzu orokorren ezaugarri da, establezimenduen % 49,5 erabat informatizatuta baitaude, eta % 39,1 ia guztiz informatizatuta. Informatizazioak industria-adarretako establezimendu gehienei (% 70,1 metal-industrian, % 69,6 energia-industrian eta % 56,3 manufaktura-industrian) ere eragiten die, bai eta hezkuntza eta osasunekoei ere. Aldiz, adar horietan, erabateko informatizazioak gutxieneko ehunekoak ditu, 1996ko datuen aldean aurrerapen nabariak egin diren arren.

Gainerako adarretan, ostera, oraindik informatizazioa sartu ez den zentroak dira nagusi. Eraikuntzan, informatizatu gabeko zentroak % 56,8 dira, garraio eta komunikazioetan, merkataritza, ostalaritza eta konponketetan eta beste zerbitzu batzuetan % 65 eta % 70 bitarte. Eta kasu guztietan erabateko informatizazioko ehunekoa % 10 baino txikiagoa da. Kasu horietan guztietan hobekuntza nabari da 1996tik hona, bereziki eraikuntzan, bestelako zerbitzuetan eta garraio eta komunikazioetan. Hobekuntza ez da hain nabaria izan merkataritza, ostalaritza eta konponketak adarrean.

#### **Eta establezimenduaren tamainaren arabera**

Informatika hedatzearen ahaleginak batez ere establezimendu txikien arazoari egin behar die aurre. Hala, 3 langile edo gutxiago dituzten establezimendu gehienek (% 60,1)

ez dute inolako informatizazio-prozesurik hasi. Kopuru hori, hala ere, 1996ko % 74,8 baino askoz hobea da.

Egoera nabarmen hobea da 3 eta 9 enplegatu bitarteko establezimenduetan. Izan ere, hein bateko informatizatzea asko hobetu da, % 44,5era iritsi baita; erabateko informatizazioa establezimenduen % 27,2tara iritsi da. Horrenbestez, egoera modu nabarmenean hobetu da 1996tik hona, bereziki erabateko informatizazioari dagokionez (% 17,3; eta % 41,7 hein batean informatizatutako zentroetan).

Informatizazioa sartzean izandako aurrerapenak 10 eta 99 langile bitarteko zentroetan ere atzeman dira, eta 1996ko datuen aldean, erabateko informatizazioa asko hazi da (10 eta 49 langile bitartekoetan % 20tik % 34,8ra, eta 50 eta 99 bitartekoetan % 27,5etik % 50,6ra). Mota horretako zentroetan ia ez da geratzen informatizatu gabeko establezimendurik (10 eta 49 langile bitartekoetan % 5,1 eta 50 eta 99 bitartekoetan % 0,4).

1996an 250 enplegu baino gehiagoko establezimenduetan baino ez ziren gehiengoak erabat informatizatutako zentroak, eta gaur egun 50 langiletik gorakoetan dira gehiengoak. Gainera, 1996an gehiengo hori 1.000 langiletik gorako zentroetan baino ez zen % 60tik gorakoa, eta 2000. urtean 100 enplegutik gorakoetan gertatzen da hori.

Tamaina jakin bateko establezimenduen informatizazio-maila altuak enpresa-lanen arloetan pilatzen dira. Hala, 100 enplegutik gorako establezimenduetan, enpresa-arlo guztiek dute informatizazio-maila altua, tamaina horretako establezimenduen % 70 baino gehiago biltzen dituena. Era berean, merkataritza, kontabilitatea eta nominak adarrean kasurako, informatizazioa erabatekoa da establezimendu handienetan, hots, 500 enplegutik gorakoetan. Aztertu ditugun arloetako 10 eta 99 enplegu bitarteko establezimendu gehienei ere eragiten die informatizazioak. Aldiz, 3 eta 9 enplegatu bitarteko zentroetan, merkataritza-arloan baino ez da gehiengo (61,1), eta biltegiaritze-arloan ere garrantzitsua (44,7) da. 3 enplegu baino gutxiagoko zentroetan ostera, informatizazioa establezimenduen % 15-20tan izan ohi da.

## **24. Ekoizpen-prozesuetan eta produktuak berritzean dinamismo txikiagoa**

1996 eta 2000 bitartean, Euskal Aeko ekonomiaren prozesu eraberritzaileak beherakada handia izan du eta hori hainbat adierazletan islatzen da.

Lehenik eta behin, 5 lanpostu baino gehiago duten eta azken 4 urteetan ekoizpen-prozesua aldatu duten establezimenduen proportzioak behera egin du, eta 1996an % 38,9koa izatetik gaur egun % 22,6koa izatera pasa da. Modernizazioaren erritmoa moteltzeak batez ere antolaketako aldaketengan izan du eragina, baina teknologiaren dinamikan ere eragina du (1996an % 24,6 zentrok zuten eragina eta gaur egun % 12,2k). Horrela, 1996an % 25,8 establezimendu berri ziren maila horretan, eta une honetan % 18,5era murriztu da joera hori.

Bigarrenez, 5 lanpostu baino gehiago dituzten establezimenduetatik, azken lau urteetan produktuak berri dituztenen ehunekoak jaitsi egin da 1996ko % 28,8tik % 14,7ra. 1996. urtearen aldean, beheranzko joera dago produktuaren berritze-mota guztietan. Horrela, produktu-sorta berriak diseinatzeko ehunekoak 1996an % 15,2koa izatetik gaur egun % 7koa izatera pasa da; diseinuaren arloan, zentroetako % 13,5etik % 7,8ra pasa da; material berriei dagokienez, % 9,4tik % 6,5era pasa da; eta beste berrikuntza batzuei dagokienez, % 6,1etik % 2,7ra pasa da.

Datozen urteetarako aurreikuspenek berrikuntzaren beherakada egiaztatu dute.

### **Eragin orokorra sektoreka**

1996ko egoeraren aldean, adar guztietan ikusi da ekoizpen-prozesuetako modernizazioaren erritmoa moteldu dela. Hala ere, eta teknologiaren arloari dagokionez, ez da oso nabarmena metal-industriari (modernizatzeko prozesuak dituzten establezimenduen proportzioa % 32,2tik gaur egungo % 28,3ra pasa da eta hurrengo urteetarako aurreikuspena % 28,2an mantendu da). Datozen urteetarako garraioan eta komunikazioetan nahiz energia-industriari berreskuratu egingo dela aurreikusten da. Gainerako kasuetan, azken urteetan berritzeko prozesua moteltzearen joera baieztatu egin da hurrengo urteetarako aurreikuspenetan.

Teknologia berritzeko prozesuetako joera negatiboa garbiago ikusten da produktuak berritzeko prozesuetan. Horrela, ekonomiaren adar guztietan berrikuntzako baliabidearen beherakada ikusten da.

### **Eta Araban eragin diferentziala du**

Dinamismo-galera batez ere Araban nabarmendu da. Oso deigarria izan da Arabako zentroetan teknologia berritzeko joerak izan duen beherakada: 1996. urtean, berritzeko prozesuak zituzten % 35,4 zentro hauteman zituzten, eta 2000. urtean % 14,6 zentro. Bestalde, datozen urteetarako % 16,3ko aurreikuspena dago. Beherakada horiek ez dira horren handiak izan Bizkaian eta Gipuzkoan. Beraz, teknologia berritzeko prozesuetan parte hartzen duten zentroi dagokienez, 1996an Arabaren azpitik 10 puntura egotetik orain gainera (Bizkaia eta Gipuzkoa % 19tik hurbil daude eta Araba % 14,6tik hurbil) izatera pasa dira.

Produktua berritzeko prozesuei dagokienez, Arabako zentroak Euskal Aeko gainerako establezimenduen azpitik daude, horrelako berrikuntzak egin dituzten establezimenduen pisu erlatiboari dagokionez. Hala ere, datozen bi urteetan lurraldeen



arteko aldeak zuzentzeko joera dago. 1996. urtearen aldean, gertaera horrek aldaketa nabarmena ekarriko du. Izan ere, urte horretan, parte-hartze berritzaileari dagokionez Araba besteen gainetik zegoen 10 puntu baino gehiagorekin.

## **25. Ingurumenaren arloko jarduera bere horretan geratu da**

Aurreko puntuan adierazitako dinamismo-galera bat dator zentroetan ingurumenaren arloan egiten diren jardueren geldialdiarekin. EAeko 5 lanpostuko enpresa-establezimenduen % 10,7k ingurumenaren arloko berrikuntzaren bat egin dute azken lau urteotan. Hala ere, kopuru hori 1996an lortutako % 10,9 baino txikiagoa da. Datozen bi urteetarako, badirudi horrelako jarduerak egingo dituzten zentroen kopuruak pixka bat gora egingo duela. Arlo horretan berrikuntzak egingo dituzten 5 lanpostu baino gehiagoko establezimenduak % 12,9 izango dira.

## **26. I+Gren arloan beste aurrerakuntza txiki bat hauteman da**

EAEn, 5 lanpostu baino gehiagoko enpresa-establezimenduen % 14,5k egiten dute I+G arloko jardueraren bat sistematikoki. 1996. urtearekin alderatuz gero, horrelako jarduerak egin dituzten establezimenduen ehunekoak gora egin du, lehen ehuneko hori % 11,9koa baitzen. Teknologiaren eta lehiakortasunaren ikuspuntutik ona den puntu hori ez dator bat ekoizpenaren, produktuen berrikuntzaren eta ingurumen-berrikuntzaren arloetan islatutako berrikuntza-gaitasuna galtzeko joerarekin.

I+G arloan sartzeko joera industrian (% 21,9) handiagoa da zerbitzuen sektorean (% 13,0) eta eraikuntzakoan (% 2,8) baino. Hala ere, kopuru erlatiboetan, eta 1996. urtearen aldean, zerbitzuen sektoreko establezimenduek izan dute aurrerakuntza handiena.

Probintziak, I+G arloko lanak sistematikoki egitean, Gipuzkoako establezimenduak Bizkaikoen gainetik daude (% 15,9 eta % 14,1 hurrenez hurren), bai eta Arabakoen gainetik ere (% 12,1). Alde hori 1996. urtean ere nabaritu zen.

## **27. Kanpo-merkatuan era mugatuan sartzea**

5 enplegu baino gehiago dituzten establezimenduek zein merkatutan parte hartzen duten aztertuz gero, horietako % 83,5 soilik eskualdeko merkatuan azaltzen dira. Horrela, probintzian edo Euskal AE osoan parte hartzen duten zentroak gutxiengo dira (% 20,9 eta % 12,8 hurrenez hurren). Espainiako merkatuari dagokionez, % 11,1era jaisten da establezimenduen kopurua. Era berean, Europar Batasuneko merkatuetan zentroen % 2,6 sartzen dira, eta munduko gainerako merkatuetan establezimenduen % 1. Eskualdearen eta Europar Batasunaren eremuetan izan ezik, ehunekoek beherakada islatzen dute 1996. urtean lortutako emaitzen aldean. Datu horien arabera, badirudi zentro berriak batez ere tokian bertan jarduteko sortu direla.

### **Batez ere zerbitzuen sektorean izan da nabarmena**

Merkatuaren tokiko izaera (probintziaren eremuan ia-ia sartu ere ez da egin) da zerbitzuen sektorearen zati handi baten ezaugarria, eta, bereziki, merkataritza, ostalaritza eta konponketak, hezkuntza eta osasuna eta bestelako zerbitzuak adarren ezaugarria. Izan ere, probintziako merkatura % 15 baino zentro gutxiago ireki dira. Batez ere tokiko

edo eskualdeko izaera duten arren, probintziako merkatura irekita dauden establezimenduen ehunekoa zertxobait handiagoa (% 24,9) da merkataritzako zerbitzu orokorren kasuan. Eredu handiagoetan zabaltzen diren establezimenduak % 15 baino gutxiago dira. Garraioetan eta komunikazioetan, joera bere horretan geratu da. Hala ere, probintziako merkaturaren sartzea areagotu egin da (zentroen % 36,4). Gainera, horien % 25 eta % 30 bitarte Euskal Aeko eta Espainiako merkaturaren azaltzen dira. Estatutik kanpo, zerbitzuen adar guztiak gutxi azaltzen dira merkaturaren (gehienekoa garraioak eta komunikazioak adarrean, EBko merkaturaren % 6,7rekin).

Eraikuntza-sektoreak merkataritza-zerbitzuen adarraren antzeko profila du. Batez ere eskualdean jarduten du, baina zentroen % 23,9 probintzian azaltzen dira.

Manufaktura-industriak garraioen eta komunikazioen antzeko jarrera erakusten du. Tokiko jardueraren jardura osagarria da, oso garrantzitsua lurraldeko merkaturaren (zentroen % 37,7), bai eta Euskal Aekoan (% 28) eta Espainiakoan (% 24,5) ere.

Energiaren eta metalaren industriaren kasuan bakarrik hitz egin daiteke tokiko merkaturaren, lurraldeko merkaturaren eta lurraldez kanpoko merkaturaren izaera osagarriaz. Horrelakoetan, zentroen zati garrantzitsu bat autonomiaren merkaturaren (energia-industriaren % 52,4 eta metalaren sektorearen % 40,9) eta Espainiakoan azaltzen da (% 47,2 eta % 38,3). Gainera, adar horiek dira kanpoaldean gutxienezko presentzia dutenak, bai Europar Batasunean (establezimenduen % 15 inguru) bai munduko gainerako merkaturaren (zentroen % 9 inguru).

### **Eta establezimendu txikietan**

Establezimenduen tamaina erabakigarria da fakturazioaren merkatu geografikoa aztertzean. Establezimenduen tamaina handitzen doan heinean, hainbat eta merkatu gehiago irekitzen dira.

10 langile baino gutxiago dituzten establezimenduetan, zentroak batez ere eskualdean oinarrituta daude. Horrela, tokikoak ez diren, edota lurraldekoak edo Euskal Aekoak ez diren merkaturaren gutxienezko presentzia izaten dute, eta establezimenduen % 30ek baino gehiagok ez dute inoiz ere parte hartzen. Estatuko merkaturaren, soilik 3tik 9ra lanpostu bitarteko establezimenduak azaltzen dira (gutxi gorabehera establezimenduen % 15), presentzia handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Zentro gehienek eskualdeko eremuan ere lan egiten duten arren, 10 eta 99 langile bitarte dituzten zentroen artean, establezimenduen kopuru nahiko handi bat nazioartekoak ez diren tokiko merkaturaren haraindikoetan azaltzen dira. Bestalde, 50 eta 99 langile bitarte dituzten zentroen artean, kopuru nahiko handia azaltzen da Europar Batasuneko nahiz munduko merkaturaren (establezimenduen % 34,7 eta % 21,8 hurrenez hurren).

100 lanpostu baino gehiago dituzten zentroetan, establezimendu gehienek erkidegoko eta Espainiako merkaturaren dituzte jardura nagusiak. Gainera, Europar Batasunean (zentroen % 40 eta % 50 artean) eta munduko gainerako tokietan era garrantzitsuan azaltzen dira (establezimenduen % 30 eta % 40 artean). Horrelakoetan, eskualdeko eta probintziako merkaturako orientazioek garrantzia galtzen dute.

Gaur egungo datuak 1996ko datuekin alderatuz gero, Euskal Aeko establezimenduen parte-hartze erlatibo handiagoa izateko joera dagoela esan daiteke.

Izan ere, 250 lanpostu baino gehiago kanpoko merkatuetan daude eta munduko gainerako tokietan parte-hartzen duten zentroen proportzioak behera egin du. Gainerako kasuetan, hots, 250 lanpostu baino gutxiagoko zentroetan, Euskal AEn zentroek kanpoko merkatuetan duten ehunekoazko parte-hartzeak murrizteko joera du.

## **28. Azken urteetan, lehiakortasun-gaitasunaren pertzepzioa pixka bat okertu egin da**

Nahiz eta Euskal AEn 5 lanpostu edo gehiagoko establezimenduen arduradunen % 60k atzerriko establezimenduen aldean lehiakortasun bera dutela nabarmentzen duten, alde handiak daude lehiakortasun-mailan abantailak edo desabantailak dituzten establezimenduen ehunekoan, lehiakideak dauden toki geografikoaren eta beraiek duten maila teknologikoa kontuan hartuz gero.

Horrela, Euskal AEn eta Estatuan dauden lehiakideen aldean, establezimendu gehiagok jotzen dute beren teknologia-maila konpetentziak duena baino hobea dela (% 28,2 eta % 26,8 hurrenez hurren), konpetentziak duena baino okerragoa dela jotzen dutenak baino (establezimenduen % 8,3 eta % 12,8 hurrenez hurren).

Aldiz, nazioarteko merkatuei dagokienez aurkakoa gertatzen da. Europar Batasuneko eremuan, adibidez, maila horretan parte hartzen duten zentroen % 15,9ek besteen aldean abantailak dituztela jotzen dute, eta % 27,5ek besteen aldean desabantailak dituztela. Nazioarteko gainerako merkatuei dagokienez, kopuru horiek % 19,4koak eta % 23koak dira. Beraz, kopuru horiek alderatuz gero, Euskal AEn ekonomiarentzat sartzen zailena den merkatua Europar Batasuneko delako ikusten da.

Gainera, duela gutxioko datuek gure establezimenduek 1996koa baino posizio okerragoa dutela adierazten dute. Bestalde, Espainiako nahiz nazioarteko merkatuan desabantailak dituztela dioten establezimenduen kopuruak gora egin du, eta toki hobean daudenen kopurua jaitsi egin da. Esate baterako, Espainiako merkatuan lehiatzeko posizio ona dutela eta ez dutela dioten zentroen arteko aldea jaitsi egin da 22,9 puntutik 14 puntura. Europar Batasunean gora egin du besteen aldean desabantailak dituzten posizioak. Gorakada hori -9,1 puntutik -11,6 punturakoa izan da (eta gainerako nazioarteko merkatuan -0,5etik -3,6ra igaro da).

Gai horri sektoreen ikuspuntutik helduta, Espainiako merkatuan Euskal AEn mesederako diren aldeak asko murrizten dira metal-industrian eta manufaktura-industrian, bai eta gainerako zerbitzu-adar guztietan ere. Hala ere, garraioen eta komunikazioen sektorea salbuespena da.

Europako merkatuari dagokionez, duela gutxioko bilakaera ezberdina da adarren arabera. Horrela, industrian eta eraikuntzan, energiaren adarra posizio txarra izatetik posizio nahiko neutroa izatera pasa da. Ildo berean, murriztu egin dira oraindik ere desabantailazko posizioan dauden metal-industria eta eraikuntza. Manufaktura-industria, aldiz, egoera positibotik egoera negatibora pasa da. Ildo berean, Europarekin alderatuta, zerbitzuen sektorean ere desabantaila posizioak gora egiteko joera du.

Europakoa ez den nazioarteko merkatuan, duela gutxioko bilakaerak Europar Batasunekoaren antzeko joera du. Horrela, energiaren eta metalaren industrien beren posizioa hobetu dute, egun lehiakorak izatera iritsi arte. Gauza bera gertatu da eraikuntzarekin, nahiz eta oraindik ere posizio lehiakor negatiboa izan. Aldiz, manufaktura-industriaren errealitateak eta zerbitzuen sektoreko arlo askok txarrera egin

dute. Sektore horretan honakoa gertatu da: 1996an adar guztiak onak izatetik soilik merkataritza-zerbitzuen adarra eta bestelako zerbitzuena mantendu dira egoera onean.

## 29. Modernizazio-prozesuaren abiadura moteltzeak lotura du duela gutxiko inbertsio-prozesuen bilakaerarekin.

Teknologian eta merkatuan ikusitako joerak duela gutxiko inbertsioaren bilakaerarekin du lotura. Ildo horretan, garrantzitsua da 90eko hamarkadako erdialdeko inbertsio-prozesuaren indarra ikustea. Izan ere, 2000. urteko prozesu horren beherakadarekin alde handia dago. Inbertsioaren jarrera hori bat dator CMT-Eskariaren gaur egungo edizio<sup>5</sup> berrikuntzako eta ekoizpen-aldaketako prozesuei buruzko datuekin. Aldiz, datu horiek ez datoz bat Euskal AEko enpresek I+Gn duten parte-hartzearen bilakaera onarekin.

Bilakaera kontrajarri horren azalpen gisa, esan daiteke 1996. urtean horrelako prozesuetan parte hartu zuten establezimenduek berrikuntzak orduko egoeragatik baino ez zituztela egin, eta beren enpresako estrategiaren barruan ez zituztela sistematikoki I+Gko jarduerarik egiten. Bestalde, 1996ko ehuneko handiak hurrengo urteetako beherakada ekarri zuen, ekoizpen-prozesuetako aldaketak ezarri ostean. Aldiz, I+Gko jardueretan diharduten enpresek beren jarduerarekin jarraitu dute. Horrela, lehiakide izan daitezkeenak jarduera horretara erakarri dituzte eta I+G prozesuetan izandako eraginak gora egiteko lagungarria izan da.

Hala ere, aipagarria da 1996an zeuden egoera ekonomiko nahiz enpresako aurreikuspen onen egoera (ekitaldia batez ere Euskal AEko ekonomiarako izan zen ona, ziklo hedakorraren erdian baitzegoen eta enpresek ahalegin handia egin baitzuten inbertsioetan) aldatu egin dela, eta 2000ko egoerarekin alde handia egon dela. Izan ere, 2000. urtean beherakadaren seinaleak hasi ziren, eta lehenik eta behin enpresen inbertsioari eragin zion. Beraz, berrikuntza-prozesuak sartzean eragina izan zuen.

Beraz, egoera horrekin zalantzak sortzen dira Euskal AEko ekonomiaren etorkizun lehiakorrari buruz. Batez ere, Euskal AEkoak ez diren merkatuetan gure establezimenduen posizioak okerrera egin duen testuinguru honetan. Horregatik, bada, gure enpresek kanpoko merkatuetan izan duten posizio lehiakorraren bilakaera negatiboa kontu handiz eta sakon aztertu beharko da etorkizunean.

<sup>5</sup> Espainiako kapital finkoaren eraketa gordinaren eta ekipo-ondasunen inbertsioaren bilakaera, 1996-2000 (INERen datuak)



